

DBH_4_MAILA GORPUTZ HEZKUNTZA_PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Alis Alonso	Maila	4. maila	Ikasturtea	2021-22
-----------	-------------	-------	----------	------------	---------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

Gorputz Hezkuntza derrigorrezko irakasgai bat da, astean bi orduz lantzen dena.

Klase gehienak praktikoak direnez soinketa gelan edo patioan burutuko dira, gelan edo beharrezkoak diren beste eremu batzuetan (frontoia).

Beharren arabera Unitate Didaktiko desberdinen ordena alda daiteke barneko

Gorputz Hezkuntzako ikasgaia DBH 4 mailan derrigorrezko ikasgaia da. Astero ikasleek bi ordu izango dituzte. Klase gehienak praktikoak izango dira eta soinketa gelan, patioan, kanpoko estalkian edo ta frontoian burutuko dira.

Unitate Didaktiko desberdinen ordena alda daiteke barne funtzionamendu

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

	1	2	3	4	5	6	7	8		
1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3	4	5	6	7	8		
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	1	2				6	7			
3) Gaitasun digitala.	1	2	3		5	6	7			
4) Ikasten ikastea	1	2	3	4	5	6	7	8		
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1	2	3	4	5	6	7	8		
6) Ekimena eta ekintzailletza.	1	2	3	4	5	6	7	8		
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.					5					

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

EDUKIAK

DBH CURRICULUMA

Maila honetan, edukiak bi multzotan antolatuta daude:

- 1.- Jarduera motorrak
- 2.- Osasuna

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae Berdin Bidean** programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

DBH CURRICULUMA

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
10	1. Egoera fisikoa: erresistentzia	7	4. Bakarkako egoerak	9	7. Natur ingurunekeo jarduerak
10	2. Aurkaridun egoerak	7	5. Arte eta adierazpena	9	8. Kolaborazio-oposizio jarduerak
2	3. Nutrizioa	6	6. Egoera fisikoa: Indarra		

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Ariketa fisikoen zailtasunaren arabera, batzutan irakasleak ikaslea bideratuko du eta hainbat aldiz ikasleak modu autonomoan lan egingo du. Gehienetan ikasleek taldeka lan egingo dute, IK/KI taldekatzea eta metodologiak erabiliz..

Ikasgai honetako jarduera gehienek izaera praktikoa izanen dute, naiz eta, batzuetan arlo fisikoak zati teoriko bat izango duen.

IKASGELA plataforma digitala erabiliko dugu, bai eduki praktikoa zein teorikoa lantzeko, apunteak bidaltzeko, lanak aurkezteko, zereginak egiteko... bide bezala.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

Ondorengo ataletan, ebaluazio eta errekurzio irizpideak garatuko ditugu.

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

- Atal teorikoa %20 (lanak, fitxak...)
- Atal praktikoa %40 (azerketa praktikoa, jarrera, irteerak...)
- Jarrerako atala: %40 (klaseko portaera, higiena, errespetua...)

Oharra: Jarrerako atala gaituta ez duenak ezingo du ikasgaia gaituta.

Atal teorikoa ez balego atal praktikoa %60aren balioa izango du.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK eta GUTXIENEOAK

- **Unitate Didaktiko baten nota:** Ebaluazio irizpideen arabera.
- **Ebaluazioko nota:** ikasleak ebaluazioko unitatetan lortutako noten batzbestekoa; baina unitate didaktiko bakoitzeko nota, **3 puntukoa izan behar da gutxienez.**
- **Ekaineko nota** izango da hiru ebaluaketan noten batzbestekoa. Kontutan hartuz inola ere ez ezin izango da gaituta **bi ebaluazio suspendituta** izanez gero, media 5 batera ailegatu arren.
- **Gutxieneoak.** Ikasleak irakasgaia gaitutzeko ondoko gutxieneoak bete behar ditu:

- ✓ **Froga guztietan** aurkeztea.
- ✓ Eskatutako **lan idatzi guztiak** eginak eta emandako **epe barruan** aurkeztuak izatea.
- ✓ **Portaera gainditua** izatea.
- ✓ Frogetan ezarritako irizpideen arabera bost batera ailegatzea.
- ✓ Irteeretan parte hartu.

Borobiltzea:

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

- **Ebaluazioan** ikasgaia gainditzen ez duen ikasleak, hurrengo ebaluazioan suspenditutako ikasgaia edo unitatea gainditzeko aukera izanen du.
- **Ekainean:** Hiru ebaluazioen batz bestekoa ez bada 5-ra iristen, nahikotasun frogara aurkeztu beharko da
- Ebaluazio bakar bat suspendituta izanez gero eta hiru ebaluaketako noten batezbestekoa bost batera ailegatzen ez bada, nahikotasun frogan aurkeztu beharko da.
- Nahikotasun froga egin ondoren ikaslea 5 batera iristen ez bada, ez ohiko deialdian froga egin beharko du. **Ez ohiko deialdiko** froga, kurtsoan zehar emandako unitate guztietan oinarritzen da. Irakasleak ekainean ikasleari ez ohiko deialdi frogetako irizpideak emango dizkio.

KANPOKO EBALUAZIOA

Gorputz Hezkuntzako arloan ez da kanpo ebaluaziorik egiten.

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.

Iruñea, 2021ko iraila.